

# noaua



## YOLANDA ARRIETA: "GELA BAT ESKATZEN ZUEN VIRGINIA WOLFEK, ETA NIK ETXE BAT ESKATZEN DUT AMETS EGITEKO ETA SORTZEKO"

Peru Galbeterekin batera, 'Etxe bat' errezitaldi musikatua eskainiko du igandean Sutegin / 06-07

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

**'Usurbil Museo Irekia' eta Chillida Leku, eskutik helduta** / 05




NOAUA

**NOAUA! Kulturaldia: Larunbat honetan 'Toto' antzezlanaren Sutegin** / 10



NOAUA

**Aztarrika: "Herri bizi bat behar dugu, gazteria aktiboa duena"** / 12



NOAUA

**Kalezartarren txokoa eta Emakumeen Etxea martxoaren 23an irekiko dira** / 20




## Alsazia eta Oihan beltza

IRTEERA 2024ko maiatza

Noaak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaqa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

**OCASO, SANTALUCIA...IZANEZ GERO,  
HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,**  
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

MOMENTU LATZETAN GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

**943 36 21 63 (24 orduz)**

·BEILATOKI GUZTIAK ·ERRAUSKETAK ·LEKUALDAKETAK



www.funerariagonzalez.es

# KULTURALDIA 2024

**TOTO** Antzerkia  
otsailak 24, **LARUNBATA**, 19:00 Sutegi



**ETXE BAT** Poesia errezitaldi musikatua  
otsailak 25, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi



Usurbilgo Udala

**noaqa**

www.noaqa.eus



## Erromeria gau bizia Aginagan

Hitz emandakoa gogotik bete zuten. "Tapia-Leturiatarrak topera iritsiko gara Aginagara". Esan eta egin. Topera bete zuten Aginagako Eliza Zaharra. NOAUA! Kulturaldiaren baitan, Eliza Zaharra Elkargunearekin lankidetzan eskainitako kontzertua ezin arrakastuagoa izan zen. Goraino bete zuten zaletuek kontzertu gunea eta gogotik ikusi, entzun, eta are biziago dantzatu zuten emanaldi hasieratik bertatik amaiera arte, taldearen kantu eza-guneren erritmora.



Tapia eta Leturia taldea Aginagako Eliza Zaharrean aritu zen aurreko larunbatean. Giro ederra sortu zen.

### Garbigune mugikorra, Zubietan

Otsailaren 22tik aurrera, garbigune mugikorra Zubietan izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Otsailaren 29an osteguna, garbigune mugikorra Txokoaldera eramango dute.

### Larunbat honetan, 1956an jaiotako kinto bazkaria

Otsailaren 24an larunbata, Sekañan elkartuko dira eguerdiko 14:00etan. Izena emateko telefono zenbaki hauetako batera deitu behar da:

- 687 706 363 (Mertxe).
- 695 780 696 (Blanca).

Otsailaren 20an amaitu zen izena emateko epea.

### 1952an jaiotako bazkaria apirilaren 27an egingo da

Apirilaren 27rako antolatu dute kinto bazkaria. Artzabaldgo jatetxean batuko dira. Oturuntza eguerdiko 14:00etan hasiko da. Apirilean egingo bada ere, izena emateko epea zabalik da honez gero. Horretarako, deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

### Sagastien neguko kimaketari buruzko ikastaroa

"Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa" saioa antolatu du Alkartasuna kooperatibak otsailaren 23rako. Arratsaldeko 15:30etik 18:30era batuko dira Potxoenean. Izena aurrez bideratu behar da telefonoz (943 361 114) edo alkartasuna.eus web orrialdearen bidez.

**noaua**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio kontseilua:**  
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,  
Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goiena.  
**Publizitate arduraduna:**  
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzaleak:**  
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 2.980 ale.  
**Imprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu  
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Usurbilgo Udala**

## IRITZIA



UGAITZ AGIRRE

## Azalaldatzen (5)

**E**z naute lurretik jaiki nahi malapartatu horiek. Eskuak askatzen saiatu naiz, baina alferrik. Estuegi lotuta naukate.

Haserretzen ari naiz. Posible al da pertsona bat horrela edukitzea, zer eta idazteagatik? Euren jardunbidea kaltetu badunik idatzitako zerbaitek, euren errua izango da egin beharrekoa ez egiteagatik, ezta? Agian ere oraintxe libratzeko indarra izan, eta banan-banan jipoituko banituzke. Orduan idatziko nituzke direnak eta ez direnak Noauako orrialdean. SARE KRIMINAL BAT DAGO USURBILEN IZEN ETA ABIZENEKIN. Irakurleak flipatuko luke horrekin.

Tamalez, gipuzkoarrak dira, eta gipuzkoar izateak badakar berarekin desgrazia handi bat: zozo hutsa izatea.

Eta azalaldatzeguztiak direnez zerbaitenak, hau, zozoarena.

Musika-talde batetik hots egin zidaten. Aspaldi jo gabea nintzen, baina sos batzuk irabaztera, ezin uko egin eskaintzari. Talde martxosoa zen. Jendeari gorputza astinarazteko doinuak jotzen ditu, eta ezinezkoa da geldirik egotea. Ezinezkoa, territorioaren arabera. Oholtzatik gauza asko ikusten dira, are gehiago parrandaren baitan.

Aginagako eliza zarreen zen kontzertua. Giro intimoa, argi gutxi eta jendea pilatuta. Parrandarako gogoak zeudela adi zitekeen bakesteitxetik. Garrasiren bat edo beste entzuten zen, baina alkoholak ez zituen oraindik ondo bus-

ti barruak. Denbora kontua izango zen.

Igo ginen oholtzara txalo artean. Zaparrada ez izan arren, balekoa. Jakin dakigu giroan ez dela derrepentean sartzen, berotze-prozesua egon ohi da. Eltzea sutan jartzerakoan ere, ez da istant batean irakiten hasten ura. Halere, gukindartsu hasi nahi izan genuen. Inoiz ez da komeni behetik hastea, jendeari barneko indar eta euforiaren berri eman behar zaio hura ere kutsa dadin. Sarri ez gara konturatzen, baina emozioak uste baino kutsagarriagoak dira.

Baten bat dantzan hasi zela aitortu behar dut. Suziriak botatzeraino ezer, ordea. Gehienago bere tragoa eskuan, ezpainak zertxobait mugitu eta zentimetro koadroko bere espaziora mugatzen zituen hanken mugimenduak. Hori mugimendurik balitz. Hiru kanta jo genitueneko, eil, kontua pixka bat animatzen hasi zela zirudien. Aurreiritziak zeinen txarrak diren ohartu nintzen, eta agian gau zoragarri baten hasieran izango nintzela imajinatu nuen.

**"KONTZERTUAREN EKUATOREA GAINDITUTA, PENTSATU NUEN OHEA ZEINEN GUSTURA HARTUKO NUEN"**

Elkarukituak, elkar begiradak, elkar trukeak. Sugarrak gori, irakinaldia uste baino lehenago iritsiko zen. Oholtza gainean ere nabari ziren izerdi eta euforia usainak. Garrasi desafinatuak iristen zitzaizkigun, eta gozamenaren lurrinak bat kolokatzearaino eramanez. Kide artean, hitzik esan gabe ulertzen ditugu horrelakoak.

Kontzertuaren ekuatorea gaindituta pentsatu nuen ohea zeinen gustura hartuko nuen. Oholtza batera aspaldian igo ez, eta horrelako harrerak gehiagotan igotzeko gogoia ematen du. Agian ez naiz horren zorrotza izango hurrengo eskaintza egiten didatenean.

Guztien ustekaberako, zozo bat sartu zen eraikinera. Haren karranka sartu hutsarekin nabaritu zen. Bazirudien lutoz zetorrela, baina atzealdean pausatuz, eta tira, han zegoen bitartean, molesti handirik ez zuen eragingo. Emozioak kutsatzen direla, hori esana dut lehenago, eta zozo haren karranka haize hotzaren pare hedatu zen aretoan barrena. Hango bati egin zion galdera bat, eta dantzarako eta dibratsiorako gogoak han uxatu ziren, eta gai sasi-sakonetan murgil, mundu konpontzeko jardunari ekin. Batu eta batu jendea, edo kendu eta kendu, oholtzatik begiratuta. Mundua konpondu, eta guri konplot. Marmarra gailendu zitzaion musikari, eta berearekin konforme, zozoak alde egin zuen gu izorratuta.

## 'Treba gurasoak', ostegunean Potxoenean

'Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak' izeneko saioa antolatu dute Gaztelekuak, Hitz Ahok, Udalak eta Foru Aldundiak ostegunerako, otsailaren 22rako 17:30ean Potxoenean, haur eta nerabeen gurasoentzat. Gonbidapenak doan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman. Donna Apellanizek bideratuko du saioa. "Hitzaldi honen bitartez, seme-alaben emozioak kudeatzeko eta zaintzeko kontuan izan beharrekoa landuko dugu, horrela, familiaren osasun emozionala zaintzeko tresna sinple eta eraginkorrek eskuratuz".

## Zea Mays, Aitzagaren 30. urtemugan

Ekainaren 1erako egun osoko jaialdia iragarri du Aitzagak.

### Ekainak 1, larunbata

- 13:00 Ekitaldia.
- 13:30 Fanfarrikant Brass Band.
- 14:00 Herri-bazkaria.
- 18:00 Fanfarrikant Brass Band.
- 19:30 Gunearen irekiera Dj Jotaxorekin.
- 22:00 Kontzertuak: Olaia Inziarte, Delirium Tremens, Zea Mays, Dj Jotaxo.

Afaltzeko aukera ere izango dela iragarri dute.

### Sarrerak, eskuragarri

Sarrerak dagoeneko salgai jarri dituzte usurbilkultura.eus plataforman.

**Antxeta**  
TABERNA  
egunero irekitzen dugu!  
eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, raziok...  
paellak enkarguz!  
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

943 361182  
**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrenea 8, USURBIL  
943 37 00 08

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak  
Zubiarrene 2, 943 36 55 81



Zumetaren eta Chillidaren ondarea ezagutzeko bisita gidatu bereziak iragarri dituzte Usurbilgo Udalak eta Chillida Lekuk.

## Zumeta eta Chillida uztartuko dituzten bisita gidatuak

Usurbilgo kaleetan hasi eta Chillida Lekun amaituko diren bi bisita gidatu antolatatu dituzte.

Ehun urte bete dira Eduardo Chillida jaio zenetik eta mendeurren honetarako hamaika ekimen antolatatu dira, bera omendu eta bere ondarea ere balioan jartzeko. Bestalde, Jose Luis Zumetaren frontoi atzeko muralak ere 50 urte bete ditu. Bi urteurrenok uztartuko dituen egitasmoa aurkeztu zuten iragan astean, Usurbilgo Udalak eta Chillida Leku Museoak. "Usurbil Museo Irekia" herri honetako kaleetako kultur sorkuntzan barrena bidaiatzea ahalbidetzen digun 650 Usurbil Bizi turismo egitasmoaren baitako

ekimenak eta Chillida Lekura bisitak bat egingo dute laster. Biak uztartzen dituen bi bisita gidatu berezi antolatatu dituzte otsailaren 25erako eta martxoaren 23rako. 11:00etan abiatuko dira Sutegitik. Izena aurrez eman beharko da 650usurbilbizi.eus atarian.

### Artisten ekarpena baloratzeko

"Denok dakigu bide oparoa egin duela, nork beretik bai Chillidak eta Zumetak eta euren ibilbideetan inoiz topo egin zutela, esaterako Gaur taldean", gogorarazi zuen

Agurtzane Solaberrieta alka-teak aurkezpen ekitaldian, gaineratu zuenez, "diktadura frankista zela eta, kulturari bide emateko helburuz". Horregatik, zioenez, lerrootako bi urtemugek eskainitako aukera baliatu nahi izan dute, "bi artistak berriro uztartu eta bisita gidatu baten bidez euren obrak ezagutzera eman, aitortu eta balioan jartzeko, ondorengoei dagokigulako hain justu ere hori bermatzea". Eskerrak eman nahi izan zizkion Chillida Lekuko ordezkariari aurkezturiko egitasmoarekin bat egiteagatik. "Zinez espero dut, izan dadi-

**"DENOK DAKIGU BIDE OPAROA EGIN DUELA NORK BERETIK, BAI CHILLIDAK ETA ZUMETAK"**

la bide oparo baten hasiera bat".

### Berrikuspenerako

Bisita gidatuotan ikusi ahalko ditugun kultur altxorak nabarmendu zituen Chillida Lekuko arduradun eta Eduardoren biloba Mikel Chillidak. Izan ere, "horrek artearengandik gertu egoteko aukera ematen digu". Gai honi buruzko ikuspegia azaldu zuen Potxoeneko aurkezpenean. "Gizarteak mugitzen dira, ez daude inoiz geldirik, eta arteak gauzak berriro begiratzeko eta nolabait, hezteko aukera ematen digu", bere esanetan, esaterako, bai Usurbilen nahiz Chillida Lekun dagoen ondarearen bidez. Oroitu nahi izan zuenez, "aitonak beti hitz egiten zuen mugei buruz. Muga zertarako daude? Zeharkatzeko. Orain, hemen bost kilometrotara aukera izatea hainbat artista ikaragarriren artelan ikusteko Euskal Herriko hamabosgarren mendeko baserri baten barruan, sekulako aukera da. Eta museoko atea herri honi irekitzea oso aukera polita da. Denok gure ikuspegi berriak izango ditugu gauza berdinei begiratzeko. Chillida Lekuren izenean, eskerrik asko".

Bi eremuak elkarren artean hain gertu egonda, "aukera ederra da bat egiteko", eta ondorioz, "geure atea ireki eta artea partekatzeko". Usurbilgo kaleetan ditugun arte-lanei erreparatuta gogorarazi zuenez, "aitonak ere lan handia egin zuen arte publikoaren alde", hain ohikoa ez zen garaian. Horregatik, "zorionak ematen dizkizuet. Proiektu ederra da eta bera seguru oso pozik egongo zela hau aurre-eramategatik".

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
· PLATER KONBINATUAK · BOKATAK · PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Artzi**  
PATRIMONIO  
· bazkariak EGUNERO  
· afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 · © 688 690 361



Iazko arrakasta ikusita, bigarrenaz antolatu du literatura txapelketa Etumeta AEK euskaltegiak.

# Idatzizko sorkuntzan murgiltzeko aukera bigarrenez

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA ANTOLATZAILEA

Lehen edizioak izandako harrera arrakastatsua ikusita, bigarrenez literatura lehiaketa antolatu du Etumeta AEK euskaltegiak. Lanak aurkezteko epea zabalik duzue.

**Segida izateko abiarazi zenuten lehiaketa hau. Aurreikuspenak gaindituta agurtu zenuten estreinako edizioa?**

Oso pozik. Ilusio guztiarekin hasi ginen ekimen hau presatzen, Usurbilen ere nahi genuelako literaturari, euskarari halako astindutxo bat eman. Sei lan jaso izan bagenu pozikgeratuko ginatkeen, baina jaso genituen espero genuena baino dezente gehiago. Aurten, iazkoa gainditu nahi genuke. Formatu berari eutsiko diogu, ikusita iaz ondo funtzionatu zuela. Aldatuko dugun gauza bakarra sarientza izango da. Dirua eman ordez, Hurbilago elkartearekin hitz egin dugu eta haiek osatutako

herriko produktuen saski batzuk izango dira sariak. Espero jendea are eta gehiago animatuko zaigula parte hartzera.

**Idazlanei dagokienean, bada iaz arreta eman zizuen ezaugarriak?**

Epaimahaikideek behin baino gehiagotan adierazi ziguten,

**"IDAZTEN JARTZERAKOAN IKUSTEN DUTE OSO IDAZLAN POLITAK SORTZEKO GAI DIRELA"**

espero zutena baino emaitza hobea izan zela, jendeak oso txukun idatzi zuela, sorkuntza maila oso polita izan zela. Iazko garailearen idazlana laster argitaratuko duzue eta ikusten da, maila badago, baita orohar idazten ez dakiela diotenen artean ere. Idazten jartzera-koan ikusten dute oso idazlan politikak sortzeko gai direla.

**Talentu berriak deskubritzeko aukera izan duzue, beraz.**

Usurbilgo edozein herritarrentzat bideratu genuen lehiaketa, baita gure ikasleentzat, nahi genuelako euskaltegiko dinamikaz gain, euskarekin eta literaturarekin beste kontaktu bat izan zeza-

ten. Nahi genuen herriarentzako ekimen polita izatea eta gutxiena espero den harripe batetik azaltzen da idazle kontsokratu bat, esaten duena orain arte berarentzat idazten zuela, animatu egin zela eta idazlan ederra bidaltzen dizu. Zentzu horretan, aurten ere beste berrikuntza bat bada-karkiguna da, geurekin lankidetzan idazketa tailerra antolatuko duela Sutegek. Pozgarria da. Izan ere, ikusten da Sutegek lankidetzarako pres-tasuna eta handitzen doala ekimen hau. Horrez gain, herriko komertzioen laguntza izango dugu sari horiek osatzeko. Herriarentzako proiektua zen hasieratik, herriarena bihurtzen ari da.

**Euskaltegiko erronketako batekin, herrigintzarekin bat egiten du horrek ezta?**

Argi dugu, hemen, euskaltegi barruan euskara irakatsiko dugula eta gure ikasleei euskarenganako atxikimendu hori transmititu nahi diegula, baina garbi dugu beste gauza asko egin behar direla. Garbi dugu euskara ez dela hemen bakarrik burbuilatxo batean geratzen, kalea hartu beharra dagoela eta kalerako gauzak egin behar direla. Zalantzarik gabe, literatura lehiaketa hau hor sartzen saiatu ginen eta ikusten ari gara hemen bide bat badagoela, herria erantzuten ari dela eta parte hartzeko prest dagoela.

**Sarritan, eremu pribatuan gertatzen den zaletasuna izanik, bideratzen, plazaratzen joateko aukera eskaintzen du txapelketa honek.**

Berez idaztea bada zerbait nahiko bakartia. Egia da jende askorentzako geratzen dela bakardade horretan. Agian ikusi dute batzuk haietzako gordetzen zuten zaletasun hori atera eta parteka dezaketela. Orain badirudi aukera badutela hori zabaltzeko. Horrekin animatzen badira berriro ere, boligrafoari heldu!



## lazko sari banaketan zer zioten egileek idazlanek izandako hareraren inguruan?

Parte hartzaileetako batzuk esan bezala ikasleak dira. Hasieran ez zuten oso serio hartu; ipuin bat idatzi behar dugula? Baina oso gai izan ziren denak idazteko. Aipatutako lan sarituak ikasleak izan ziren. Haietako batek baino gehiagok ez zuten espero. Bazen lan bat baino gehiago bidali zituena, idazten hasi eta esan zuelako, ondo ari zela pasatzen. Deskubritu zuten gustatzen zitzaizkien mundu bat, eta gainera, onak ziren mundu bat.

## Bizipen hauek denak kontuan izanda, zein animatu nahi zenukete parte hartzera bereziki, bigarren edizio honetan?

Irakurtzea gustatzen zaienei eta gainera idaztea sekula plantetatu ez dutenei. Ikusi genuen iaz, perla oso politak heltzen direla haiengandik eta haietazko badela sorpresa bat, sekula jarri gabe eta oso ondo pasatzen dute. Oso polita ateratzen da. Bada deskubrimendu bat. Baina jakina, horrez gain, parte hartu nahi duen guztientzako, usurbildar guztientzako zabalik dago txapelketa hau eta gure ikasleentzat noski. Xaxatuko ditugu, ea halako sorpresa batzuk ateratzen diren.

## 2. Etumeta Literatura Lehiaketa

### Nori zuzendua

Usurbilen erroldatua egon edota Etumeta AEK euskaltegian matrikulatuak dauden 18 urtetik gorakoei (adin hau izatea, lanak bidaltzeko unean). Sorkuntza lanak izan beharreko ezaugarriak: ipuin laburrak izango dira, 650 hitz, gehienez; Times New Roman letra idatziak, 12 neurrian, espazio bikoitzarekin; gai librean idatziko dira; lanak aurrez argitaratu gabeak izan-



Euskaltegian matrikulaturikoe edota 18 urtetik gorako usurbildarrek parte har dezakete literatura txapelketan.

go dira, baita lehiaketa batera bidali gabeak ere; euskaraz idatziak behar dute.

### Dokumentuak

Bi dokumentu bidaliko dira inaki-d@aek.eus helbidera. Honako hauek:

1. dokumentua: Ipuina bera, marka identifikagarririk gabe, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburua bera izango da: "IZENBURUA.PDF".
2. dokumentua: parte hartzailearen datuak, hau da, izena, bi abizenak, jaiotze data, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa, PDF formatuan. Artxiboaren izena ipuinaren izenburuarekin berarekin identifikatuko da: "IZENBURUA.DATUAK.PDF".

### Epeak

- Otsailak 12-apirilak 7: lanak bidaltzeko epea.

**"DESKUBRITU ZUTEN GUSTATZEN ZITZAIEN MUNDU BAT, ETA GAINERA, ONAK ZIREN MUNDU BAT"**

- Ekainak 5: sari banaketa. Bertan "gingo da irabazlea publiko, irabazleari emailez jakinaraziko zaio aurretiaz". Irabazle bakarra egongo da, "eta gehienez ere bi aipamen; bakoitzari diru saria eta oroigarria emango zaizkio. Epaimahaiak sariren bat emangabe utzi dezake, merezitako lanik ez dagoela erabakiko balu". Parte hartzaile guztiak gonbidatuta egongo dira sari banaketara, eta oroigarri bana emango zaie.

### Sariak

Txapelduna: 150 euroko baliadun saskia, Hurbilagoren eskutik. Aipamena: 70 euroko baliadun saskia, Hurbilagoren eskutik.

### Epaimahaia

-Etumeta AEK euskaltegiak hautaturiko hiru kideek osatuko dute. "Haien erabakia aldae-

zina izango da", ohartarazi dute antolatzaileek. Etumeta AEK arduratuko da epaimahaikideei lanak bidaltzeaz, identifikatu ez ditzaten, baita, epaia ebatzi ondoren, hura bere egilearen datuekin lotzeaz ere.

### Oharrak

Ez da inolako pertsona zein kolektiboren aurkako eduki iraingarririk onartuko. Parte hartzaileek onartzen dute euren lanak argitaratu ahal izatea NOAUA! aldizkarian eta Etumeta AEKren sare sozialetan. Baldintza guztiak onartzea dakar parte hartzeak berak, lehen hau barne. Informazio gehiago: [blogak.eus/etumeta-euskaltegia-aek](http://blogak.eus/etumeta-euskaltegia-aek)

### Idazketa tailerra

Euskaltegiokekin lankidetzan eta literatura txapelketaren testuinguru horretan, idazketa tailerra antolatu du Sutegi udal liburutegiak, martxoaren 5ean, 18:30ean hasita. Yolanda Arrietak bideratuko du saioa liburutegian bertan. "Idaztea gustatzen zaizu eta nola hasi ez dakizu? Yolanda emango dizkizu ideia batzuk", iragarri dute liburutegikoek. Tailer honetan parte hartzeko aski izango da 16 urte izatea. Izen-ematea, liburutegian.



Yolanda Arrieta bere etxe berriko sofán deskantsatzen. Igandean Sutegin arituko da, Peru Galbeterekin batera. NOAUA

# "Nire jaiotetxea eta etxea nire barruan daude"

**YOLANDA ARRIETA** IDAZLEA ETA IPUIN KONTALARIA

"Etxe bat" poesia errezitaldi musikatuak itxiko du aurtengo NOAUA!ren Kulturaldia otsailaren 25ean, Yolanda Arrieta idazleak eta Peru Galbete musikariak sortutako lanarekin.

NOAUA! Kulturaldia aurreko astean abiatu zen. NOAUA!k antolatutako zikloak, ordea, jarraipenik izango du asteburu honetan. Azken iganderako, kultur plan ederra izango da agendan, "Etxe bat" poesia errezitaldi musikatuak. Yolanda Arrieta idazlea eta Peru Galbete musikaria oholtzaratuko dira otsailaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan. Idazlearen etxean izan gara eta errezitaldiaren nondik norakoak hobeto ezagutzeko gakoak eskaini dizkigu.

**NOAUA! "Etxe bat" lana oholtzaratuko duzu Peru Galbete musikariarekin batera, baina zer da "Etxe bat"?**

"Etxe bat" aspalditik osatzen ari naizen proiektu bat da. Etxeak ere halaxe egiten dira: poliki-poliki. Duela pare bat urte diru-laguntza eskatu nuen Eusko Jaurlaritzan ipuinak egiteko, baina forma gerora ateratu egiten da. Poesia narratibo bilakatu da lan hau. Ez dira poema solteak, nahiz eta solte ere irakur daitezkeen. "Etxe bat" osotasun bat da eta bost zati dituen kontakizun bat. Kontakizun horretan norberaren etxea zahartzaroari opatzeko desioa ageri da, zer den etxerik ez izatea eta horretatik datorren aldarrikapena. Gela bat eskatzen zuen Virginia Wolfek, eta nik etxe bat eskatzen dut

amets egiteko eta sortzeko. Are gehiago emakumezko izanda. Hori dena da "Etxe bat".

**Poesia errezitatuko duzu. Zeure hitzak dira edo poetaren bati hartutakoak?**

Testua oso luzea da eta liburua hilabete barru aterako da. Liburua luzatu egin da. Forma maiz aldatu diot eta argitale-

**"ETXE BAT" ASPALDITIK OSATZEN ARI NAIZEN PROIEKTU BAT DA"**

txe batek ezetz esan eta bigarrenak eman dit baiezkoa. 2024ko Poesia Egunetarako aurkeztu nuen proiektua. Donostiako Euskal Jaien baitan, irailaren hasieran, egiten dira idazle, elkarre eta Donostia Kulturaren bitartez. Nik oraindik ez neukan libururik, baina proiektua aurkeztu eta baiezkoa eman zidaten. Orri pila bat idatzita neuzkan oraindik liburu bilakatu gabe, eta material horretatik ikuskizun bat prestatu behar nuen. Hori maiatzean izan zen eta ez nekien musika eta poesiarekin zer egin. Orduan, Peru Galbeterekin gogoratu nintzen. Nik iazko udaberri arte ez nuen ezagutzen; baiezkoa eman baino hilabete lehenago ezagutuko nuen Sutegin eskaini zuen emankizun batean. Nire lanarekin oso ondo uztartuko zela iruditu zitzaidan. Proposamena egin nion eta ideia bikaina iruditu zitzaidan. Hala hasi ginen lehen bilkurak egiten. Nire etxe berrian elkartu ginen eta 125 folio mahai gainera ateratu nituen. Ez nekien nondik hasi ere. Oso gordin neukan dena, distantzia hartzea falta zitzaidan dena argiago ikusteko. Udan atzera eta aurrera ibili ginen testuekin. Uhartan, Peru bizi den herrian, sortzaileentzako areto edo gune berezi bat daukate. Peru bertako bazkidea da, eta han elkartu ginen udan pare bat aldiz. Gela ilun batean sartu ginen eta entseatu egin genuen testua, eta musika nola txertatu aztertzen ibili ginen. Peruren webgunean sartu nintzen ideien bila eta musika jada sortuta zegoela ikusi nuen, askoz gehiago sortzeko beharrik gabe. Kronograma ateratu zitzaidan automatikoki. Zati bakoitzaren musika aukeratuta, testuari zatiak kentzen hasi ginen eta azkenean, irailean, Donostian erakutsi genuen emaitza. Azken entseguan testu gehiago kendu genuen. Oso ondo ateratu zen. Helburu bat neukan, hautatutako bizimodutik (ipuinak



idaztea) ez nuen nahi barne-  
tik ateratako zerbait ederra  
egin behar nuenean, oso ur-  
duri jarri eta ez gozatu. Hori-  
xe helarazi nion Peruri ere.  
Azken bi urtetan osatutako  
lana izan da. Ama 2022an hil  
zen eta astebururo joaten nin-  
tzen neure jaiotetxera. Ama-  
rekin egoten nintzen eta ha-  
rekin bizitako gauza asko  
bildu ditut testuan. Irailaren  
3an egin genuen errezitaldia  
Poesia Egunetan, nire amaren  
heriotzaren lehenengo urteu-  
ren egunean. Omenalditxo  
bat izan zen. Oso intimoa eta  
neurea izan zen eta publikoa-  
ri ere hori iritsi zitzaion. Nitik  
gura eginiko jauzia izan zen.

### Zenbateko iraupena du ikuski- zunak?

Testua finduz joan gara. Ordu  
eta hoge minutuko lana pres-  
tatu genuen hasieran, baina  
oso luzea zela eta ordu eta  
laurden edo ordubetera hur-  
biltzen den zerbait nahi zuten  
lehen emanaldi hartarako.  
Beraz, pixka bat kendu genuen,  
baina jada ez dugu kenduko.  
Ordu eta laurdeneko saioa da  
gutxi gorabehera. Liburuare  
martxan dago eta Liburuaren  
Egunerako argitaratuko dut.

### Haur eta Gazte Literaturan ibili zara lanean, batez ere. Helduen literaturan ere zure pausoak eman dituzu, baina errezitaldi hau ego- kiagoa da helduentzat, ezta?

Bai, helduei zuzendutako  
emanaldia izango da. Nik beti  
esaten dut munduari gutunak  
idazten dizkiodala. Gutun hori-  
rietan, ni txikia dago, ni nera-  
bea, gaztea, erdi-heldua, hel-  
dua eta oso heldua. Oraingoan,  
oso heldutik aritu naiz, baina  
ez dut galtzen ume begirada.  
Badaude horrelako ukitu ba-  
tzuk haur begiradari eta alda-



Yolanda Arrieta eta Peru Galbete Markina-Xemeingo ikuskizunaren amaieran.

rrikapen batzuk ere bai haurra  
ez galtzeari. Premia neukan  
hau egiteko orain beste haur-  
tzaro batean nagoelako: zahar-  
tzaroaren haurtzaroan. 60 urte  
bete nituen joan zen urtean  
eta zahartzaroan sartu nintzen:  
zahartzaroaren haurtzaroan.  
Ez dut erabat galdu haur uki-  
tua, baina denek jakin deza-  
tela helduei zuzendutako  
ekitaldia dela. Haurrekin ez  
etorri, beste hausnarketa ba-  
tzuk eskatzen ditu. Marki-  
na-Xemeinen egin genuen  
ikuskitza duela bi aste eta  
jendeak azpimarratu zigun  
harrirta geratu zela ordu eta  
laurdenean bizitza oso bat

**"UNE  
HONETAN BESTE  
HAURTZARO  
BATEAN NAGO:  
ZAHARTZAROAREN  
HAURTZAROAN"**

kontatzen dugulako. Ez da  
egia, oraindik osoa ez delako,  
zati handi bat bizitzeke dut  
oraindik.

### Poesia errezitaldi tradizionalean oinarrizten da ikuskizuna?

Garrantzitsua da azpimarratzea  
osotasun bat baduela. Poesia  
da, baina ipuin bat kontatuko  
dut. Kantua eta soinua lagun  
izango ditut. Elkarrekin egin-  
go dugu lan momentu oro eta  
taularatzea ere badago. Esze-  
nografia minimo bat daukagu  
eta objektu gutxi batzuk ere  
badaude. Pelikula bat ikustea  
bezalakoa izango da. Doinua  
eta poetikotasuna uztartuko

**"OROITZEKO  
AUKERA EGONGO  
DA, PENTSATZEKO  
AUKERA ERE BAI,  
BAINA BAITA  
SENTITZEKO ERE"**

ditugu. Oroitzeko aukera egon-  
go da, baina baita pentsatu  
eta sentitzeke ere. Performan-  
zetik badu lan honek ere. Hi-  
tza esan eta egitea gustatzen  
zait: hitza egitea. Hau da hitza  
esan, kontatu eta egin.

### Urte ugari daramatzazu herrian bizitzen. Usurbil zure etxe bihur- tu da?

Bai, erabat. Markina-Xemeinen  
izan ginenean esan nien ber-  
takoei ni ez naizela markina-xe-  
meindarra; ni Etxebarrikoa  
naiz, ondoko herrikoa. Giroa  
erabat etxeokoa nuen, eta ho-  
rregatik jarri nuen hauxe:  
"Etxean etxeko: zorioneko".  
Usurbilen ere gauza bera ja-  
rriko dut; eduki daitezke bi  
etxe. Erreal, sinbolikoa, oroi-  
menekoa, imaginarioa... etxeak  
askotarikoak izan daitezke,  
baina garrantzitsua da ikustea  
nondik zatozen eta jakitea non  
zauden nora joan nahi duzun  
irudikatzeke. Une honetan oso  
gustura nago nagoen lekuan.  
Nire zahartzaroaren haurtzaroa  
hemen hasi dut. Itzultzen zara  
jaiotetxera ere eta txangoak  
egingo ditut, baina nire jaiot-  
etxea eta etxea nire barruan  
daude. Han ere badaude fisi-  
koki eta hangoak ere elikatzen  
nau, baina barruko horrek ere  
bai. Joan zen guztia eta orain  
ez dagoena, nire barruan dago,  
eta baita neurri handi batean  
ere proiektu honen barruan.  
Jende askok usurbildartzat  
hartzten nau, baina nik beti diot  
Usurbilen bizi den bizkaitarra  
naizela. Munduko kidea ere  
banaiz.

### Beraz, zuk etxe bat ez, bi etxe dituzu.

Bai, eta mundua hirugarrena  
da eta haren inguruan eta ma-  
mian dagoen zera ikusezin  
hori laugarrena.

**eskura**  
elikadura eta dietetika aholkularitza  
DIABETESA, HIPERTENSIOA,  
GIZENTASUNA, ELIKADURA  
ETA KOLESTEROL ARAZOAK  
**688 843 696**  
Zubiaurrenea 1, 1c Usurbil

  
**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
[www.artzabaljatetxea.com](http://www.artzabaljatetxea.com) 943 36 91 39

- EGUNEKO MENUA
- KARTA
- RAZIOAK
- HANBURGESAK
- BOKATAK

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)  
USURBILGO ATARIA



Asier Hernandez eta Miren Gojenola, 'Toto' antzezlaneko aktoreak.

## Larunbatean, 'Toto' antzezlana Sutegin

Miren Gojenola eta Asier Hernandez dira antzezlaneko aktoreak. Larunbatean Sutegin arituko dira, gaueko 22:00etan.

Mafalda Bellidoren Chucho obraren moldaketa da 'Toto'. Maik (Maitane) eta Joseluk (Jose Luis), Toto txakurraren kusto-

dia partekatzen dute. Toto galdu egin da Joselurekin zegoenean eta orain Maik ezin du imajinatu bizitza bera gabe.

Maitasunik gabe. Maik eta Joseluk modu latzean eztabaidatzen dute, "geure bikotearekin, geure bikote guztiekin askotan egin izan ohi dugun moduan".

Barrutik tragedia moduan bizi ohi diren eztabaidak, kanpotik ikusita, gehienetan barrugarriak eta komikoak izaten dira. Hala azaldu dute obraren nondik norakoa: "Toto txakur guztientzat egokia den bikote komedia da, komedia olimpikoa da. Belaunaldiz belaunaldi iraun duen sagastien adina dauka eta baita txakurkume batena ere. Maitasunaren zuri-beltzaz hitz egiten du oro har, bere magnitude kosmiko osoan. Joselu, Mai eta Toto, oraintxe bertan, gizateriaren eta animaltasunaren artean daude".

Sarrerak alde zuzenetik eskura daitezke usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 8 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera bat baina NOAUA!-ko egoitzan soilik.

### '40 minutu rock' kontzertura, autobusez

Usurbilgo Ernai gazte antolakundeak berri eman duenez, larunbateko Durangoko ekimenera joateko autobus zerbitzua antolatu dute.

Aurten hemezortzi musika taldek parte hartuko dute: Arene 6, Belako, Burutik, DAM, Des-kontrol, Esne Beltza, Hofe x 4:40, Ibil Bedi, Nevada, Nøgen, Raimundo el Canastero, Streetwise, Su ta Gar, DJ Kuku & Kene, LaMia Mari, Kiliki Frexko DJ Set, Pineapple Sweets eta Xaukena xauk.

### Kiroldegitik aterako da

Andoain eta Lasartetik etorriko den autobus zerbitzua goizeko 9:20an Oiar-do kiroldegia izango du azken geltokia. 13 eurotan eskura daitezke txartelak Txirrista tabernan. Goizaldeko 3:00etan Landako gunetik buelta egiteko aukera izango da zerbitzu honen bidez.

### Ameba, Ernairen jaialdian

Martxoaren 29tik 31ra Ernai gazte antolakundeak Lezon antolaturiko "Gazteon eskutik loratuko da udaberria!" ekimenean parte hartuko du Usurbilgo musika taldeak.



Peru Galbete eta Yolanda Arrieta Sutegin arituko dira igande honetan.

## Igandean, 'Etxe bat' errezitaldia Sutegin

Yolanda Arrieta idazlearen eta Peru Galbete musikariaren ikuskizuna arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

Errezitaldi berri hau prestatzeko garaian, Yolanda Arrietak Gaston Bachelard soziologoaren 'La poética del es-

pacio' entseguia izan du inspirazio iturri.

Kanpoko espazioez ari garenean geure barruko estan-

tziez ere ari garela dio Bachelardek. "Nik etxearen irudia hautatu dut neure gogoen bizigune. Eta hiru denborak estekatu ditut bizigune hori ideatzeko. Bat, oroimen beroa, nondik natorren gogoratzeko. Bi, leihoak zabalik, uneari leku egiteko. Hiru, irudimena martxan, nire guraria ez ahazteko". Yolanda Arrietak aditzera eman duenez, "gelaka aritu naiz, bakean atontzeko estantzia bakoitza. Xede bakarra buruan: amets egiten jarraitzea".

Peru Galbete musikari usurbildarra izango du alboan. Errezitaldiaren zati bakoitza girotuko du bere kanten bitartez.

### Sarrerak dagoeneko eskuragarri

Sarrerak alde zuzenetik eskuratu daitezke, 6 eurotan, usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek 4 eurotan eskuratu ahal izango dute sarrera baina horretarako NOAUA!-ko egoitzara jo beharko dute.

## 'Bizkarsoro' filmarekin abiatu zen NOAUA! Kulturaldia



Manex Fuchs aktoreak filmaren proiektzioaren ondorengo solasaldian hartu zuen parte.

Josu Martinezek zuzenduriko 'Bizkarsoro' film proiektzioarekin hasi zen bi asteburu iraungo duen NOAUA! Kulturaldia. Ia auditorioa beteta, filmaz gozatu eta Manex Fuchs aktorearekin solasaldia egiteko aukera izan zuten Sutegira bertaratutakoek.

## Umorea eta hausnarketa, eztandaen ondotik



Idoia Torregaraik eta Mirari Martiarenak 'Ztandap' ikuskizuna eskaini zuten aurreko igandean Sutegin.

Eztanden eztanda bizi izan genuen igandean Sutegin, Idoia Torregarairen eta Mirari Martiarenaren eskutik. "Ztandap" emanaldiak, harremanak, feminismoa, zaintza, maitasun erromantikoa, egunerokoan "normalduak" ditugun hamaika egoera... ekarri zizkiguten umoretik.



**errigora**

errigora.eus

# otsailak 25 - martxoak 13

## Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

# Eutsi gureari!

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.








Otsailaren 10eko Inauteri Festan, datorren Gazte Eguna iragartzeko plazan ateratako talde argazki jendetsua.

# "Herri bizi bat behar dugu, gazteria aktiboa duena"

## AZTARRIKA GAZTE ASANBLADA ANTOLATZAILEA

"Herri bizi bati deika, egin Aztarrika" aldarripean, iazko etenaldiaren ostean, Gazte Eguna badatorrela iragarri du Aztarrika Gazte Asanbladak. Martxoaren 2an ospatuko da.

**2022ra arte azaroan antolatzen zenuten Gazte Eguna. Iaz ez zen ekimen hau egin. Martxoan dator aurtengoa. Zerk eragin du data aldaketa?**

Gazte Eguna azaroan ospatu ohi izan dugu, ikasturte hasierarekin batera. Aurten, Gazte Eguna antolatzen hasi aurretik, beharrezkoa ikusten genuen gazteei parte hartzeko deia luzatzea Aztarrika Gazte Asanblada berpizteko eta talde sendo bat sortzeko. Horretarako, *moskeo* kanpaina bat eraman genuen aurrera, gazteak antolatu ezean Gazte Egunik ez dagoela adierazteko. Aldi berean, aurtengo ikasturte hasiera oso berezia izan da. Euskal Herriko Neska\*

Gazteek antolatutako Bateriajotzearekin eta azaroaren 30eko Zaintza Grebarekin oso lanpetuta egon gara herriko eragile asko. Beraz, Gazte Egun indartsu bat antolatzeko erabakirik onena data martxoara mugitzea izango zela ikusi genuen.

**Eragile ezberdinek artikulaturiko gazte mugimenduak antolaturikoa izango da Gazte Eguna ezta? Elkarlan hau zertan zaizue onuragarria?**

Gazte Eguna Aztarrika Gazte Asanbladak antolatzen du. Hala ere, argi dugu herriko eragile ororen elkarlana beti dela aberasgarria. Talde ezberdinen parte-hartzeak he-

erriko errealitatearen ikuspegi osoago bat izatea ahalbidetzen du. Horren adibide nagusia dugu geroz eta forma gehiago hartzen ari den Elkargunearen prozesua. Gazte mugimenduko eragileon elkarlana oso handia da eta urte osoan zehar ekimen ezberdinak antolatu ohi ditugu, elkarren artean

**"ERABAKIRIK ONENA DATA MARTXORA MUGITZEA IZANGO ZELA IKUSI GENUEN"**

sareteko eta gazteon problematikei are eta indartsuago aurre egiteko. Horren adibide izan ziren kontsumoaren inguruan antolatutako gabonetako Gazte Topaketak. Eragile bakoitzak bere ekarpena eginez, egitarau borobil bat eraman genuen aurrera, hausnartzeko zein euskal kulturaz gozatzeko espazioarekin.

**Kafe Tertulia, Ernai, Aztarrika eta Xauxar, bere baitan hartzen dituen gazte mugimendua hamaika egitasmotan murgildua egoten da urtean zehar. Azken aldian, zertan zabilzate?**

Ez dugu deskantsurako tarte handiegirik izan orain arte, egia esan. Kafe Tertulia Euskal Herriko Neska\* Gazteen Bateriajotzearen antolaketan eta Greba Feminista Orokorrean murgilduta egon da hasiera hasieratik. Aipagarria da bi hauek ekarri duten feminismoaren baitako aktibazioa Usurbilgo gazteriarengan. Orain, mugarri hauetatik ateratako fruituak jasotzea dago-kigu. Aztarrika, berriz, birdefiniketa fase batean aurkitzen da. Gazte Egunera begira aurrelanketa indartsu bat aktibatzen genuen lehen lauhilekoan eta ostean, gabonetako topaketan antolaketan aritu gara buru-belarri. Santixabelei begira jarriak gaude jada eta pixkanaka Xauxar Txosna Batzordea aktibatzen lehen bilerak aurrera eramaten hasi gara. Azpimarragarria da, baita ere, Usurbilgo Elkarguneak eta honen diseinurako sortu diren eragileen arteko parte-hartze eta elkarlan espazioek asanbladarentzat daukaten garrantzia momentu honetan. Espazio baten beharra aldarrikatzen daramagu urte askoz. Orain dugu aukera! Ernaiko taldekideok berriz, mugimendu sozial ezberdinen mugarritan buru-belarri pasatu dugu lehen lauhilekoa, eta orain, gazteon bizi-baldintza duinen nolakotasuna plazaratzen jarraitzeko asmoa daukagu iaz abiatutako gazteon

→ osasun mentalaren inguruko dinamika berrartuz. Uda-berriko ekimenari ere, aurten Lezon izango dena, garrantzia berezia eman nahi diogu. Iaz, herriko gazte ugari elkartu ginen Elorrioren independentziaren, sozialismoaren eta feminismoaren aldarripean. Bada aurten gehiago izango gara!

### Gazte Egunak zer ekarpen egin nahi dio herriari?

Gazte Egunak Usurbilgo gazte eta ez hain gazteentzat erreferentziatzeko unea izan nahi du. Une edo momentu bezala kalifikatu nahi dugu, praktikan ez dugulako Usurbilgo gazteriak Gazte Eguna jendarte/militante zehatz batzuekin, egitarau zehatz batzuekin, espazio zehatz batzuekin... lotzerik nahi, gazteok antolatzeko, saretzeko eta aldarrikatzeko baliatzen dugun momentuarekin baizik, ezekin izanik ere honek hartzen duen forma. Bestalde, Gazte Egunak Usurbilgo gazteria antolatua eta ez antolatua elkarrizketan jartzea bilatzen du aurten. Gazte mugimenduak eraldaketa etengabe bizi diren eragileak izaki, kide berrien parte hartzea ezinbesteko elementua da, jarraikotasun bat bermatu ahal izateko. Aurten go Gazte Egunean dei egin nahi diogu herriko gazteria zabalari: gurea, herriko gazteona da eraldaketarako agentzia, eta gazte mugimenduak berriz, horretarako ditugun tresnarik baliagarrienak. Antola gaitezten!

### Aisialdia bizitzeko modua nabarmen aldatu da urteotan. Egun honek gazteen topagune gisa ere badu aparteko garrantzia?

Azken urteotan ikusi dugun indibidualizaziorako joera neoliberal sekulakoa izan da, gizartea geroz eta atomizatuagoa dago bizitzeko esparru guztietan. Joera honen bidez, geroz eta zapalduago gaude eta geroz eta tresna gutxiago ditugu aurre egiteko. Aipatu



Duela bi urte ere ospatu zen Gazte Eguna. Ordukoa da argazkia.

bezala, kolektibotasuna eta antolakuntza dira eraldaketarako ditugun tresnarik handienak, eta batez ere, herri bizi baterako pizgarria. Bakanduta eta isolatuta nahi gaituzte, eta guk, inertzia hori hautsi eta kaleak hartzeko eta modu kolektiboan pentsatzeko deia egingo dugu Gazte Egunaren bidez. Egun honek herriko gazteria bizi eta parte-hartzaileria izateak duen indarra argitaratu ateratzea du helburu.

### Zeintzuk dira edizio honetan plazaratu nahi dituzuen aldarriak?

Aurtengo Gazte Egun honek aldarri nagusi bat du: "Herri bizi bati deika, egin Aztarrrika".

**"KALEAK HARTZEKO ETA MODU KOLEKTIBOAN PENTSATZEKO DEIA EGINGO DUGU"**

Azaldu dugun bezala, herri bizi bat behar dugu, gazteria aktiboa duena eta lurrak harrotzen eta kontzientziak asintzen jardungo dugu hori lortzeko.

### Zer nolako eskaintza dakar aurtengo Gazte Egunak?

Gazte Eguneko eskaintza egun osoa izango da. Goizetik, aisialdi formatu batetik, gazteok hausnartzeko espazioa sortu nahi dugu, oka-jolas berezi baten bitartez. Betiko mahainguru formatutik at, esperientziak eta iritziak beste modu batera ere partekatu daitezke, eta horretara goaz. Ondoren, euskal kulturaz go-

**"HERRI BIZI, EUSKALDUN ETA FEMINISTA BATEAN SINESTEN DUEN GAZTE ORORI" ZUZENDUA DAGO**

zatzeko aukera aparta izango dugu. Arratsaldean, Aztarrrikant-ekin batera euskal kantuz beteko ditugu herriko kaleak. Urteroko moduan, gazte afaria egingo dugu Askatasuna plazan, eta ondoren, kontzertuak egongo dira. Aurtengoa ere ez da egitarau makala, ilusioz eta Usurbilgo gazteria zabalarengan pentsatuz eginga. Gogotsu gaude. Egun osoko ekintzetan parte-hartzeko gonbita luzatu nahi dugu, egunak zentzua izan dezan eta helburuak bete daitezzen ezinbestekoa baita. Afariko txartelak Txirristra eta Aitzaga tabernetan egongo dira salgai, 12 eurotan, otsailaren 27ra arte. Menu bereziren bat behar izanez gero, gure sare soziala idatzi mesedez.

### Zein dago deitua egun horretan parte hartzera?

Aurretik ere aipatu dugu behin baino gehiagotan. Ekintza honetara Usurbilgo gazte oro dago parte hartzera deitua, herri bizi, euskaldun eta feminista batean sinesten duen gazte oro. Anitzak dira egitarauan parte hartzeko moduak, eta anitzak bertan ekarpena egitekoak ere, eta guztiak dira ongi etorriak. Azken aipu bat. Aurtengo Gazte Eguna ere espazio seguru bat izatea denon ardura da eta arreta berezia jarriko diegu jarrera erasokor edota diskriminatzailerori. Ez gara nazkatuko hau esateaz: Usurbilen ez ditugu jarrera sexista, homofobo, transfoboa edota arrazistak inolaz ere onartuko. Egoten ez badakizu, ez zaitez etorri.

### Gazte Eguna

**Martxoak 2, larunbata**

**11:30 (D)Oka jolasa.**

**Ondoren, marianitada.**

**18:30** Aztarrrikant.

**20:30** Gazte afaria.

**00:00** Kontzertuak: Zaparra,

Xsakara, Dj Fresa Morango.

**Antolatzailea:** Aztarrrika Gazte Asanblada.



Iñaki Martiarena "Mattin".

# "Urteetan iruditeri bat sortzen aritu gara euskararentzat"

IÑAKI MARTIARENA "MATTIN" ILUSTRATZAILEA

Iñaki Martiarena "Mattin" ilustratzailea, Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan, otsailaren 23an 19:00etan Sutegin aurkeztuko duen "Handantza" sortu du "Mattin"-ek.

Udalbiltzaren Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan sortu diren "Hona bostekoa" komikien bildumaren erakusketa zabalduko dute ostiral honetan 19:00etan Sutegin; tartean, ekitaldian bertan izango den Mattinena. Donejakue bideko ibiltari bat protagonista duen "Handantza" aurkeztuko du.

**Iazko udako egonaldi hark zerk eman zuen zuretzat?**

Egonaldi moduan bizi izan nuen, ardura handiz. Izan ere Usurbilek badu nigan halako esanahi berezi bat eta duen ondare artistikoa kontuan izanda, horri erantzuteko ahalagin handia egin nuen.

**Egonaldi hark baldintza egokiak eskaini zizkizun sorkuntzarako?** Baldintza ezinhobeak izan nituen, bai materialki zein prestasun aldetik ere, asetuta eta eskertua nago dudarikgabe.

**Egonaldi honen osteko sorkuntza prozesuak Usurbilekiko ikuspegi aldarazi dizu?**

Zubi baten moduan irudikatu nuen egitasmoa; alde batean ni neu, bestean irakurlea. Hiru oinarriko zubia eraiki nuen: gaztaroko oroitzapenekin, egonaldian bizitakoarekin eta herriko ondare paisajistiko eta artistikoarekin. Kontuan hartu, komikia ez dudala bizi soilik gauza estetiko bezala, komunikaziorako tresnatzat

hartzen dut ere. Irakurlearen erantzuna jasotzeko irrikaz nago eta hilaren 23ko aurkezpena horretarako aukera izan daiteke.

**Egonalditik jasotakoa komiki batean islatzeko bidea nolakoa izan da?**

**"ZUBI BATEN MODUAN IRUDIKATU NUEN; ALDE BATEAN NI, BESTEAN IRAKURLEA"**

Kasu honetan, paisaia izan zen abiapuntua. Nire ibilbidean, pauso berri bat eman nuen Usurbilen; kolorearekin ahalegin handi bat egin nuen. Irudiari garrantzia eman arren, ondoren, banuen mezu bat transmititzeko eta horretarako hitzak ere baliatu nituen. Askok zaindu dut ere, idazketa. Azken batean, paperezko film bat da hau.

**Lehen xehetasunak eman dira ezagutzera; "Handantza" du izena eta San Esteban kalea ageri zaigu azalean. Usurbil ikusiko dugu?**

Publikoa hartu nuen kontuan, ez baita soilik usurbildarra izango, Euskal Herriko edozein irakurle da eta askok behar bada ez dute Usurbil ezagutuko.

**Usurbila datorren ibiltari bat da protagonista. Bisitariaren lekuan kokatu nahi izan duzu irakurlea?** Bizitasun horretan. Joera dut oinez ibiltzeko eta nire lan egiteko modua da. Egonaldi honetan ere ibili eta pausoz pauso oharra jasotzen aritu nintzen koaderno xume batean. Lekuei eta emozioei erreparatzeko modu bat da oinez ibiltzea. Lana gonbidapen bat da Usurbila hurbiltzeko eta joateko oinez. Are gehiago, gaur egun presaka gabiltzala ikusita.

**Otsailaren 23ko aurkezpena zertarako baliatu nahi zenuke?**

Ekitaldia bera xumea izango da, erakusketaren irekiera izango da. Euskarazko sorkuntzan komikia bazterreko genero bat izan da. Erakusketari honi esker, publikoak ikusi ahal du komikiak ere izan beharko lukeela bere lekua sorkuntza honetan. Publikoak ikusiko luke edozein gai landu daitekeela komikiaren bitartez, askotariko estiloetan. Urteetan iruditeri bat sortzen aritu gara euskararentzat. Zorionez erakundeak ohartu dira horretaz eta horregatik sortu zuten deialdi hau.



Informazio gehiago jaso edota izena eman nahi duenak deitu dezala 662 039 829 telefono zenbakira.

## Arantzazura oinez joateko aukera paregabea

Usurbildik tipi-tapa Arantzazuraino joateko ohitura berrituko dute "Ostegun Santu" izenarekin ezaguna den egunean.

Hamarkada luzeetako usadio zaharrari eutsi dio belaunaldi artekotasuna ere sustatu duen hitzordu honek. Duela lau hamarkada inguru "3 lagun hasi ziren ibilbide hau egiten" antolatzaileen esane-

tan. Gero, pixkanaka jende gehiago batu zen. Usurbildarrak, eta baita inguruko herrietako mendizale gehiago ere; Donostia, Amasa, Zizurkil edota Tolosa aldekoak. "Berrogeitik gora lagun joa-

tera heldu ginen", diote ekimen sustatzaileek.

Bidean beraz, jende berria ezagutzeko aukera izan dute. Iaz, esaterako, ia 20 bat lagun erakarri zituen 63 kilometroko eta 2.700 metroko desnibela duen txangoak. Udaberri beteko giroa izan zuten bide-lagun.

### Federatzeko deia

Aurtengo irteera, martxoaren 28rako iragarri dute. Izan ere, udaberriko jai egunok ere oraingoan goiztiarrago helduko zaizkigu. Goizaldeko 4:45 aldera biltzen dira frontoi atzean, 5:00etarako prestatu

eta ibilaldiari ekiteko. Tarte horretan, egunaren amaieran Arantzazutik itzultzeko autobusean aldatzeko arropa utzi ahalko da.

Ibilbidean zehar, zenbait geldialdi egiten dituzte; hala nola, Mandubian hamaiketako, Zumarraga parean arropa aldatzeko aukera, Legazpian bazkaltzeko geratzen dira eta Arantzazura helduta askari baten bueltan borobiltzen dute eguna.

Ibilbide luzeko ohitura honek usurbildarrak soilik ez, besteak beste, Tolosaldeko hainbat kide elkartu izan ditu.

### Izen-ematea martxoaren 20a baino lehen amaituko da

Informazio gehiago jaso edota izena eman nahi duenak deitu dezala 662 039 829 telefono zenbakira, martxoaren 20a baino lehen. Prezioa, 50 euro, izen-emandako mendizale kopuruaren arabera. Horren baitan sartuko da noski, Arantzazutik Usurbilera autobusez egingo den itzulera. Antolakuntzatik helarazi duten ohar garrantzitsua; parte hartzaileak federatuak izateak duen garrantzia, edozer gertatuta ere deitzaileak ez baitira horren erantzule egingo.

## 9 langabetu gehiago urtarrilean

Aurreko bi hilabeteetako, 2023ko azaroko eta abenduko joera hautsi zen urtarrilean. Izan ere, tarte horretan langabetu kopuruan izandako murrizketa (195etik 190era) eten eta lanik gabeko bederatzik herrikide gehiago zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak iragan hilabeteen Usurbilen. Guztira, 199 langabetu zeudela ohartarazi du udalerrri honetan.

Oraingo honetan, bai gizonezkoen (74 langabetu abenduan, 81 urtarrilean) zein

emakumezkoen artean (116 langabetu abenduan, 118 urtarrilean) gehitu da, nahiz zenbaki horiei erreparatuz gero agerikoa den moduan, udalerrri honek emakume langabetu gehiago izaten segitzen duen gizonetako baino.

Usurbilen antzera, eskualdean eta Gipuzkoan ere gehitu egin da langabetu kopurua. 40 langabetu gehiago zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak urtarrilean Buruntzaldean (2.832 abenduan, 2.872 urtarrilean), 1.128 lan-

gabetu gehiago Gipuzkoan (28.419 abenduan 29.547 urtarrilean).

### Kontratazioek ere gora egin dute

Langabetu kopuruarekin batera, erregistraturiko kontratuena ere handitu egin da Usurbilen. Izan ere, abenduan 272 zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak, 285 urtarrilean. Ohi bezala, gehienak, 215, aldi baterako. Oraingo honetan, ordea, gizonetako baino (137) emakumezkoen kontratu gehiago (148) erregistratu ziren joan den hilabeteetan.

## Sektore publikoan greba deitu dute martxoaren 12rako

LAB, ELA, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuek sektore publikoko mobilizazioekin jarraitzea erabaki dute eta martxoaren 12rako greba eguna deitu dute berriz. %10eko soldata igoera, publikazio planak adostea, enplegu publikoa sortu eta finkatzea, lan kargak arintzea, politika feministak adostea, sektorearen euskalduntzea edota 32 orduko lan asterantz jotzea eskatuko dute mobilizazio honen bitartez.



Sara Bikandiren esanetan, "azala eta ukimena zentzumenik garrantzitsuenak dira 0-3 urte bitarte horretan".

# "Gurasoak motibatzea da 'Azalerako ipuinak' saioaren helburua"

SAROA BIKANDI HEZITZAILEA

'Azalerako ipuinak' saioa 0-3 urteko haurrei eta euren gurasoei zuzendua dago. "Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan daitezke", Sara Bikandik aditzera eman digunez. Otsailaren 28an Sutegi udal liburutegian izango da.

**'Azalerako ipuinak' izeneko saioak literatura, musika eta masajea uztartzen ditu. Horrela laburbildu dugu guk. Ondo azaldu al dugu? Zuk nola azalduko zenuke?**

Saio honetan hainbat kontu uztartzen ditugu: ahokotasuna, ahokotasun tradizioetik datorren literatura modernoa, masajea edota jolasa.

Haurrekin egin ohi diren gauzak-jolasak, esku-jolasak, kantak, ipuin laburrak-gorputzarekin eta azalarekin lotzen ditugu, jakin badakigulako hizkuntzaren konkista gorputzarekin batera datorrela. 0-3 urte bi-

tarte horretan, azala eta ukimena dira zentzumenik garrantzitsuenak. Handitzen goazen heinean ahaztu egiten dugu hori dena, baina azaletik eta ukimenetik jasotzen dugu informazio guztia.

**"0-3 URTE BITARTE HORRETAN, AZALETIK ETA UKIMENETIK JASOTZEN DUGU INFORMAZIO GEHIENA"**

Era berean, hizkuntzak eta mugimenduak bata bestearen beharra dute garatu ahal izateko.

**Hasiera batean, urrun samar dirudite literaturaren sustapenak eta gure zentzumenen**

**"HORRELAKO SAIO ASKO EGITEN EZ DIRENEZ, GURASOEI ESANGO NIEKE EZ GALTZEKO AUKERA. BESO ZABALIK HARTUKO DITUT"**

**lanketak. 'Azalerako ipuinak' saioan, nola uztartuko dituzue bi lengoia hauek?**

Jolasaren bidez umearen arreta mantenduko dugu. Gorputzean, azalean masaje bat ematen diogun bitartean kantu bat edo ipuintxo bat kontatuko diogu. Horrek lotura afektibo bat sortuko du eta lotura afektiboak lotura literarioa ekarriko du berarekin. Uki-menaren bidez eta laztan goxoen bitartez plazera lotzen dugu kontakizunean zehar. Atmosfera bat sortzea ere garrantzitsua da, plazererako esperientzia bat izan dadin.

**Saio hauetako mekanika edo metodologia nolakoa den azalduko al diguzu?**

Bi atal uztartzen ditugu. Ahozko tradizioetik datozten olerki eta jolasen bitartez kantuan edo jolasean aritzen gara.

Adin tarte honetan ez dute arreta mantentzeko ahalmen handirik. Horregatik, kantu eta jolasen artean liburuaren kontaktak txertatzen ditugu. Adin horretan aproposak diren liburuak hautatzen ditugu. Gurasoek ideiak har ditzaten eta ipuinak nola kontatzen ditugun ikus dezaten.

**Presaka, ezin iritsi bizi garen garai ero honetan, norberarentzat eta txikiarentzat hartutako denbora tarte lasai bat izango da haxe. Desazelerazio ariketa baten modukoa, ezta?**

Bai, hala izatea gustatuko litzaiguke. Egia esan, uste dut oso momentu atsegina bizitzen dutela animatzen diren umeek eta gurasoek. Giro lasaian, gauza politak egiten ditugu; eta taldean, beste ume batzuekin batera.

Beste tempo batera jaitsi eta samurtasun horretan kontaktatzea oso garrantzitsua da, eta horrelako gauza txikiak gozatzea.





"Zure umearekin tarte goxo bat igarotzea gauza ederra da".

→ **0-3 urteko haur txikientzat eta euren gurasoentzat pentsatuta dago eta gehienez ere 45 minutuko iraupena izango du. Gurasoak beraz, saioaren parte aktibo izango dira, ez dira zaintzaile lanetara mugatuko.**

Askotan esaten dut umeentzako baino gurasoentzako dela saio hau. 'Azalerako ipuinak'-en helburua da gurasoak motibatzea, haur literaturara hurbiltzea, ideiak hartzea, baliabideak eskuratzea, inspiratzea...

Gurasoen kultura literarioa elikatze modua da eta horrek ere umeen interesa piztea ekarriko du berarekin.

**Amaitzeko, joan ez joan, zailantzen diren gurasoei zer esango zenieke?**

Animatzeko. Oso esperientzia atsegina dela eta zure umearekin tarte goxo hori igarotzea oso gauza ederra dela. Horrelako saio asko egiten ez direnez, ez galtzeko aukera. Nik beso zabalik hartuko ditut.



Plaza kopurua mugatua da. Udal liburutegian eman behar da izena.

## 'Azalerako ipuinak' saioa

- Eguna: Otsailaren 28an asteazkena.
- Ordua eta tokia: 17:30ean, Sutegi udal liburutegian.
- Gidaria: Saroa Bikandi.
- Norentzat: 0-3 urteko haurrentzat eta euren gurasoentzat.
- Izen-ematea: Udal liburutegian. Plazak mugatuak.
- Iraupena: 40 minutu, gutxi gorabehera.
- Azalpena: Giro lasaia eta atsegina sortuko dugu ukimena, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak, liburuak... baliatuz. Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan daitezke.



Ameli ipuin kontalaria martxoaren 4an arituko da udal liburutegian.

## Udal liburutegiaren eskaintza datozen asteetarako

Xake topaketa, idazketa tailerra, liburu aurkezpenak eta ipuin kontalariak, udal liburutegiaren programazioan.

### Otsailak 23, ostirala, II. Xake Topaketa

- Ordua: 17:00.
- Otsailaren 23an: LH 4tik gorakoentzat.
- Oharra: taldea oso handia baldin bada, martxoaren 1ean beste saio bat egingo dute. Bi saioak adinaren arabera antolatuko dira.
- Izen-ematea: Sutegi udal liburutegia.

### Otsailak 28, asteazkena, 'Azalerako ipuinak'

- 17:30 Azalerako Ipuinak, Saroa Bikandirekin.
- Zehaztasunak: "Giro lasaia eta atsegina sortuko dugu ukimena, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak, liburuak... baliatuz. Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan daitezke".
- Iraupena: 40 minutu.
- Nori zuzendua: 0-3 urteko haurrentzat eta euren gurasoentzat.
- Izen ematea: Sutegi udal liburutegian.
- Oharra: plaza mugatuak.

### Martxoak 4, astelehena, Ameli ipuin kontalaria

- 18:00 Ameli ipuin kontalariaren ipuin kontaketa saioa.
- Nori zuzendua: 4 eta 5 urteko haurrentzat.
- Iraupena: 45 minutu.

### Martxoak 5, asteartea, Idazketa tailerra Yolanda Arrietaren eskutik

- 18:30etan hasita, idazketa tailerra Yolanda Arrietarekin.
- Nori zuzendua: 16 urtetik gorakoentzat.
- Izen ematea: Udal liburutegian bertan.
- Iraupena: ordu eta erdi.
- Antolatzaileak: Sutegi, Etu-meta Euskaltegia.

### Martxoak 20, asteazkena, liburu aurkezpena Iñaki Zabaletaren eskutik

- 19:00 Liburu aurkezpen-solasaldia: 'Nazioa eta hizkuntza, Humboldttekin korrika' solasaldia.
- Iñaki Zabaletak "Nazioa eta hizkuntza Humboldtten pentsamenduan" liburu aurkeztuko du.
- Iraupena: ordubete inguru.



Sari banaketa aurreko astean egin zen Donostiako Aquarium-ean. Aritz Olagoi Bingen Zupiria kontseilariaren ondokoa da.

# Aritz Olagoi zubietarrak 'Kiroletik Bagoaz Euskaraz' saria jaso du

Eusko Jaurlaritzak sortu du sari hau eta era honetan "kirol munduan gertatzen diren euskararen aldeko praxiak prestigioatu nahi ditu". Aritz Olagoi zubietarraren lana nabarmendu nahi izan dute, "kirol entrenamenduetan euskara sustatzeko (KEES) metodologia zehatza garatzeagatik".

Aritz Olagoi zubietarra psikologian lizentziatua da eta jarduera fisikoaren eta kirolaren psikologian espezializatuta dago. Usurbilen kokatuta dagoen Kirolean Euskaraz kooperatibako kide da eta bere ibilbide profesionala psikologiaren, kirolaren eta euskararen inguruan burutu du. Esparru horretan, euskara kirolean sustatzeko hainbat egitasmo propio sortu ditu eta kirol entrenamenduetan Euskara Sustatzeko (KEES) Metodologia garatzeagatik, batez ere, jaso du saria.

## KEES metodologia

Metodologia honek kirol hezitzaile-entrenatzailea du ardatz, bera baita euskararen erabilera sustatzeko arduradun nagusia. Entrenamendu saioak euskaraz gidatzeko gaitasuna

duten entrenatzaileak euskaraz egingo die haurrei beti eta entrenamenduetan zein partidetan informazioa, aginduak eta zuzenketak euskaraz emanago ditu. Metodologia honen bidez, entrenatzaileek baliabide eta tresnak ezagutuko dituzte gaur egun bizi dugun elebitasuneko errealitateak haurrekiko komunikazioan sortzen dituen egoera anitzak kudeatu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak sortutako sari honek bere egunerokoan euskararen erabilera sustatzen duten kirol klubak (profesionalak izan zein ez) eta norbanakoak saritzeko ideia dakar.

## Lehen edizioko hautagaiak

Aritz Olagoi saridunari aitortza egiteaz gain, gainontzeko hautagaiei ere aipamena egin zitzaizen:

- Añorga Kultur/Kirol Elkartea.
- Arritxu Iribar kazetaria.
- EHUKo GIKAFIT Ikerketa taldea.
- EHUKo Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (IVEF).
- Gaztedi Rugby taldea.
- Ibon Oregi surfista.
- Oarsoaldeko Kirol Lan-Mahaia.
- Oihana Azkorbeitia korrikalaria.
- Ostaiska Egia.
- 11. Pou Anaiak.

**AURRERANTZEAN,  
EUSKO JAURLARITZAK  
EUSKARAREN  
ERABILERA  
SUSTATZEN DUTEN  
KLUBAK ETA  
NORBANAKOAK  
SARITUKO DITU**

## Zenbait udal dirulaguntza eskatzeko aukera


Usurbilgo Udalaren dirulaguntza lerro gehienetara eskabideak aurkezteko epea otsailaren 16an itxi zuten, baina honako hauetan ez:

- Hasiz Hazi beka deialdia: proiekturen bat duen Beterrri-Buruntzako ekintzaileari Kabiene elkartearen elkarlan-gunean egonaldia diruz laguntzeko deialdia. Eskararak aurkezteko epea irailaren 30era artekoa izango da.

- Hutsik dagoen merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berriak abiarazteko dirulaguntzak: bi letrrokoa, bat hasierako gastuak laguntzeko eta, bigarrena, lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzen laguntzeko. Eskararak aurkezteko epea irailaren 30era artekoa izango da.

- 2024an norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntzak: laguntza bereziak (5.400 euro), taldeetako prestakuntza teknikoak (1.000 euro), kiroltako oinarrizko osasun miaketak (5.000 euro), eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko dirulaguntzak (5.000 euro). Eskararak aurkezteko epea azaroaren 13ra artekoa izango da.

- Informazio gehiago, urtarrilaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.



Eusko Jaurlaritzako Partzuergoko haur eskolak doakoak dira. Udal titulartasuneko hamahiru haur eskolak aldiz, neurri horretatik kanpo utzi zituen Eusko Jaurlaritzak. Usurbilgoa, tartean.

## Haur Eskolaz hausnartzeko deia egin du ama talde batek

Ostiral honetan, goizeko 11:00etan elkartuko dira Potxoenean.

Aste hasiera honetan, Usurbilgo ama talde batek helarazi digu hitzorduaren berri. Kalezarren kokaturiko Haur Eskolaz hausnartzeko gonbita luzatu dute, eta horretarako, biltzeko deia egin dute. Bilkura, ostiralerako, otsailaren 23rako iragarri dute goizeko hamaiketean Potxoenean, eraikin horretako sotoan hain zuzen.

### Aldaketa urtea

"Usurbilgo Haur Eskolaz hausnartzen" izeneko saiara joateko gonbita egin dute. "Za-toz!", deitu du ama talde honek.

Haur Eskolaz, azkenekoz, ikasturte hasieran berri eman genuen atari honetan. Izan ere, nabarmentzeko moduko aldaketa batekin ekin zioten ikasturte berriari.

### Doakotasuna bermatzea

Gogoan izan, Hezkuntza Sailak Haur Eskola publikoaren doakotasuna aldarrikatu zuen 2023-2024 ikasturtera begira. Doakotasun hori bermatzeko finantziarioa, ordea, Jaurlaritzaren mendeko Partzuergoko kide diren eskolentzako iragarri zuen. Araban, Bizkaian

eta Gipuzkoan dauden udal titulartasuneko hamahiru Haur Eskolak (Usurbilgoa tartean), neurri horretatik kanpo geratu ziren.

Egoera horren aurrean, familia bakoitzak datozen hilabeteotan ordaindu beharko duen Haur Eskolako kuoten %62a bere gain hartzea erabaki zuen Usurbilgo Udalak. Gogoan izan, iazko udaberrian hartu zuten erabaki hau, Sutegin apirilean eginiko bilkura batean jakinarazi zuten moduan.

Familiei aplikatuko zaien kuota murrizketa, Usurbilgo Udalak behin-behinean hartutako erabakia izango da, 2023-2024 ikasturterako soilik. Hortik aurrera, 2024-2025 ikasturterako "zer egin erabaki behar da", zioen argi udal gobernu taldeak uztailko osoko bilkuran, "egungo datuetan, zama ekonomiko handia baita Udalarentzat".

## Udarregiko jertseak eta kamisetak salgai

DBH4ko ikasleek ikasbidairako dirua lor dezaten, jertseak eta kamisetak sortu eta salduko dituzte. Neurri desberdinak egongo dira aukeran, helduenak zein haurrenak.

### Jertseak:

- Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 15 euro.
- Helduak (XS, S, M, L, XL, XXL): 20 euro.

### Kamisetak:

- Haurrak (7/8, 9/10, 11/12...): 10 euro.
- Helduak (XS, S, M, L, XL): 10 euro.

### Eskaera nola egin

Eskaerak egiteko, argazkiari lotuta datozen QR kodea erabili dezakezue.

### Epea

DBH4ko ikasleek aditza eman dutenez, "eskaria eskaera kopuruaren arabera egingo da, beraz martxoaren 4aren aurretik abisatzea eskertuko genuke, inor kamiseta edo jertserik gabe gera ez dadin".

## Sukaldaritza tailerra Aitzagan, Haritz Arrutiren eskutik

Aitzaga Kultur Elkartek 30 urte beteko ditu ekainean. Ordura arte, hileroko hainbat ekimen antolatu asmo ditu. Azken asteotan, Amebaren kontzertua, barrikotea edota solasaldia iragarri dituzte. Iaz bezala, Martxo Gastronómicoa iragarri dute, datorren

hilabeterako sukaldaritza ikastaroa antolatu dute. Elketa jatetxeko sukaldari Haritz Arruti herrikideak bideratuko du iaz bezala.

### Lau saio guztira

Lau saio izango dira, otsailaren 29an, martxoaren 7an, 14an

eta 21ean, 18:00-21:00 artean Aitzaga elkartearen. Prezioa: 35 euro. Izen emateko deitu edo idatzi 697 797 941 telefono zenbakira, otsailaren 26a baino lehen. "Izen ematea ikastaro osorako izango da", ohartarazi dute antolatzaileek. "Ez galdu aukera, plaza kopuru mugatua da eta!", egin dute gonbita Aitzaga Kultur Elkartetik. 12 lagunentzako lekua egongo da gehienez.



Eskaerak QR kodearen bidez egin daitezke.

# Pelaioenearen irekiera

Kalezarko Pelaioenea irekitzera doaz. Udaletik jakinarazi dutenez, martxoaren 23an irekiko dute kalezartarren udal ekipamendua eta Emakumeen Etxea bateratuko dituen gunea.

"Eraikina barrutik osatzeko obrak amaitzear daude, azkenean, eta hori aitzakiatzat hartuta han bertan bildu dira kalezartarrak eta Emakumeen Etxeko sustatzaileak, udaleko ordezkariekin batera", helarazi duten ondoko argazkian ikus dezakezuen moduan. Herritarrak bertara joatera gonbidatu dituzte.

Aipatu moduan, Pelaioenean kokatuko dira kalezartarren bilgunea izango den udal ekipamendua baita Usurbilgo Emakumeen Etxea ere.

Gogoan izan, 2020-21 urte artean, bakoitzak bere parte hartze prozesua egin zuen Elhuyar bidelagun zutela, "Pelaioenearen funtzionamenduari buruzko alderdiak elkarrekin erabakitzeke. Pelaioeneko obrak amaitzear, berriz elkartu dira, orduan hitz egindakoak gogorazi

eta xehetasunak adostuta uzteko".

Bertan kokatuko du Udalak baita Berdintasun Sailaren egoitza, eta, beraz, "han eskainiko dira, baita ere, sail horrek antolatutako ikastaro, zerbitzu eta bestelako ekitaldiak ere. Ondo bidean, Aste Santuen ostean izango da hori", Udaletik iragarri duteenez.

## la urtebeteko atzerapenarekin amaitu dituzte lanak

Aurreikusi baino beranduago irekiko dute Pelaioenea, urtebeteko atzerapenarekin. "Pelaioenea barrutik eraikitzeke lizitazioa Indenort enpresak eskuratu zuen, eta 2022ko urrian hasi zen lanean. Udalak 585.000 euroan lizitatu zuen obra hori, eta lanak sei hilabetetan egingo zituela adierazi zuen enpresak:



Kalezartarrak eta Emakumeen Etxeko sustatzaileak, udaleko ordezkariekin batera, berriki eginiko bilera batean.

2023ko udaberrirako amaituta behar zuen obra 2024ko martxoan entregatuko dute, azkenean. Udalak enpresari jakinarazia dio dena amaitutakoan isuna jarriko diola".

## Ordutegiak

Pelaioenera lekuz aldatu artean, Berdintasun Saileko egungo hainbat zerbitzu Potoxoenan eskaintzen segiko dute, Sexu aholkularitza gunea eta aholkularitza juridikoa:

- Sexu aholkularitza gunea: bi astelehenean behin, 17:00-19:00 artean. Hurrengo zerbitzu egunak: martxoak 4, 18. Hitzordua aurrez eskatzeko aukera bideotatik: info@xele-break.com / 650 232 714.

- Emakumeei zuzenduriko aholkularitza juridikoa: hilean behin. Hurrengo zerbitzu eguna: martxoak 20, 15:00-18:00 artean. Hitzordua aurrez eskatzeko aukera bideotatik: 943 371 951.

## Futbol partidak

### Otsailak 24, larunbata

#### Haranen

- 09:30 Infantil neskek: Usurbil FT-Intxaurdi CD B
- 10:45 Infantil mutilak: Usurbil FT-Orioko FT
- 12:15 Kadete mutilak: Usurbil FT-Antzuola KE
- 15:45 Erregionalak: Usurbil FT B-Landetza KTCD
- 18:00 Jubenil preferenteak: Usurbil FT-Trintxerpe CD

#### Haranetik kanpo

- 11:00 Kadete neskek, Donostiako Cesar Beniton: Intxaurdi KE B-Usurbil FT
- 17:00 Kadete mutilak, Billabonako Arratzainen:

### Billabona KE B-Usurbil FT B

### Otsailak 25, igandea

#### Haranen

- 17:00 Preferente neskek: Usurbil FT-Irauli Bosteko KK

#### Haranetik kanpo

- 16:30 Preferente mutilak, Donostiako Puion: Vasconia CD-Usurbil FT

**Oharra:** Infantil mutilen Usurbil FT B taldeak Haranetik kanpo jokatu du Erain Txindokiren aurka. Partidaren hitzordua zehazteke zegoen aldizkari hau inprentara bidean zihola.

## Eskubaloit partidak

### Otsailak 24, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: -Usurbil KE A
- Tolosa Eskubaloia

- 11:15 Infantil neskek: -Usurbil KE B
- Eibar Eskubaloia B

- 17:30 Senior mutilak: -Saizar Usurbil KE
- Pulpo Eskubaloia

- 19:30 Kadete mutilak: -Usurbil KE
- Bergara KE Urdina

## Boleibol partidak

### Otsailak 24, larunbata

- 13:00 Oiardegi kiroldegian Kadeteak: Udarregi-Lizardi 2

## Pilota partidak

### Otsailak 24, larunbata

- 11:30 Usurbilgo frontoian Kadeteak, 1. maila: -Pagazpe 2 (Aburuza-Errasti)
- Lapke

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki baten bila gabiltza. 627184674

## MOTORRA

## SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

DBH3ko ikasle bati matematika, fisika eta kimikako errefortzu-klaseak emango dizkion unibertsitateko ikasle bat behar dugu. 615 75 84 76.

Saizarren zerbitzaria behar da, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 649 844 727.

Aginaga sagardotegian txotx garaian larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 366 710.

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaeren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiteko prest. Goizez edo arratsaldez aritzeko 616273785.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Lursail ez urbanizagarri baten bila nabil Usurbilen, Aginagan edo Zubietan. 617 771 303.

Pertsona helduen zein haurren zaintza lanak egiteko lan bila nabil. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetarako ere. Orduka zein interna

aritzeko disponibilitatearekin. 687126811

Pertsona helduarentzako laguntzailea behar dugu Antiguon astean bost orduz, euskaraz dakiena. Eusko Jaurilaritzaren titulua ezinbestekoa. 609 582 242

Pertsona helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako... 672 730 902

Garbitasun lanak egingo nituzke. 9:00-16:00 arteko disponibilitatea. 632157186

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrek zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. 676584506.

## BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kalean, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu honako telefono zenbakira: 607 168 352.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarrea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 22	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Ostirala, 23	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 24	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Igandea, 25	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Astelehena, 26	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Asteartea, 27	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loidola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Asteazkena, 28	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Osteguna, 29	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Ostirala, 01	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 02	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Igandea, 03	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08

## GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

## Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

## HILDAKOAK



**Txomin Bengoetxea Ugarte,** otsailaren 10ean hil zen, 51 urterekin.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 23

**USURBIL 'Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa', Aitor Etxeandiarekin**

15:30-18:30 Potxoenean.

**USURBIL 2. Xake Topaketa**LH 4tik gorakoentzat.  
17:00. Suteji udal liburutegian.**USURBIL 'Handantza' komikiaren aurkezpena eta 'Hona bostekoa' erakusketaren irekiera**

19:00etan Sutejin.

**USURBIL Sareren mobilizazioa**

20:00etan Mikel Laboa plazan.

**USURBIL Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa**

22:00 Aitzaga elkarte.

## LARUNBATA 24

**USURBIL Kantu-jira**

12:00. Tokia: Mikel Laboa plaza.

**USURBIL NOAUA! Kulturaldia: 'Toto' antzezlan**

19:00 Sutejin.

## IGANDEA 25

**USURBIL 'Usurbil Museo Irekia' eta Chillida Lekura bisita gidatua**

11:00-13:30 Sutejitik abiatuta.

**USURBIL NOAUA! Kulturaldia: 'Etxe bat'. Errezitaldi musikatua**

18:00 Sutejin.



Usurbilgo kanporaketa Aitzaga elkartearen jokatu da ostiral honetan.

## EHko mus txapelketako sailkapen proba

Udalerrri mailako sailkapen proba otsailaren 23an jokatu da, gaueko 22:00etan hasita Aitzaga elkarte. 21:30-22:00 artean bideratu beharko da izen-ematea.

Hitzordua Aginaga eta Saizar sagardotegiek eta Bruño marisiko etxeak lagunduko dute. Sagardotegiko bina lagunentzako otorduak eta 10 kilo txangurru eskainiko dituzte.

Usurbilen sailkatutako bikoteek Gipuzkoako kanporaketa

jokatu dute martxoaren 9an, 15:00etan hasita Iruran. Han nagusitzen direnek martxoaren 23an Zuberoako Altzain jokatu den final nazionalera igaroko dira.

Bi milatik gora bikoteek parte hartzen dute urtero ekimen honetan. Hamabosgarren edizioan, 50.000 euro banatuko ditu saritan Euskal Herriko Mus Federazioak.

Informazio gehiago, ehmus.eus atarian.

### 'Azalerako Ipuinak', Saroa Bikandirekin

Datorren asteazkenean, hilak 28, Saroa Bikandi hezitzailea eta ipuin kontalaria Suteji udal liburutegian arituko da. "Giro lasaia eta atsegina sortuko dugu ukimena, ipuinak, poemak, kantuak, jolasak, liburuak... baliatuz. Entzumena, kontaktua, ikusmena, usaimena eta dastamena literaturarako ate ireki bat izan daitezke".

0-3 urteko haurrentzat eta euren gurasoentzat egokia. Plaza kopurua mugatua denez, izena aurrez ematea komeni da, udal liburutegian.

### Odol ematea

Martxoaren 4an astelehena, arratsaldeko 16:30etik 20:10ak arte Udarregi Ikastolan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela 943 007 884 telefono zenbakira.

### Larunbat eguerdian, kantu-jira

Kantu zaharrak eta berriak kalez-kale kantatzeko parada, sagardo-txinpartekin zintzurra bustiz. Kantu-jirarako ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea. Gogoan izan bestalde, astelehenero 18:00etan Udarregi Ikastolaren Agerialde eraikineko musika gelan entseatzen dutela.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak  
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Zuen publizitatea hemen  
☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

# USURBILGO LANBIDE ESKOLAko ATEAK ZABALIK



erdi maila  
martxoak 7 17:00tan

osteguna

goi maila eta espezializazioa  
martxoak 5 17:00tan

asteartea

EZAGUTU  
GURE IKASTETXEA!



**IZENA EMAN**

tel. 943 36 46 00

**WWW.LHUSURBIL.EUS**

## SAGARRONDOTIK SAGARDORA 2024

**Otsailak 23, OSTIRALA**

SAGASTIEN NEGUKO KIMAKETA

ETA ONGARRIKETA

Aitor Etxeandia

**ORDUTEGIA:** 15:30-18:30 Potxoenea



**SARRERAK:** alde zuzenean  
usurbilkultura.eus plataforman edo  
www.alkartasuna.eus

Kimaketa  
praktikak  
bertako  
sagastietan  
egingo dira!



# URDAIRA

## Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

[f](#) [i](#) [@urdairasagardotegia](#) | [www.urdairasagardotegia.com](http://www.urdairasagardotegia.com)



## OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



## LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan  
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com)




## ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



## SAIZAR

Sagardotegia

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)



943 37 39 95



## SAGARDOTEGIA

### aginaga

URTE OSOAN  
ETXEAN EGINDAKO  
SAGARDOA  
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10  
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL  
[info@aginagasagardotegia.com](mailto:info@aginagasagardotegia.com)  
[www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

**ORDUTEGIA:**

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031



Santuenea